

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gai honen abiapuntua, bezeroekin egindako elkarrizketak izango dira, honela bezeroen gustu eta nahiak identifikatu ahal izango baititugu. Hauek bost multzotan sailkatu daitezkeela aurreikus dezakegu:



- Kirola
- Kultur ekintzak (leku ezberdinetara bisitak, museoak, irakurketa...)
- Eskulanak eta artea
- Bidaiak
- Teknologia berriak



Afinitateen arabera taldeka sailkatuko ditugu eta honen arabera antolatuko ditugu ekintzak. Huetako batzuk lokalean eskainiko dira eta beste batzuk kanpoan; batzuk sustatzaileok eskainiko ditugu eta beste batzuek aliatu eta bolondres taldearekin batera. Jarduera hauek planifikatuta egongo dira. Puntu hau oso garrantzitsua ikusten baitugu komunitateari forma eman eta indartzeko.

Bestalde bezeroek antolakuntza honetan parte hartzeko aukera izango dute, aurreko ataletan aipatu dugun bezala uneoro egongo baigara iradokizun edo proposamen berriak entzuteko prest eta horrela bakoitzak bere ideiak garatzeko aukera izango du.

